

# Zintzoen saldoan





**Jon Alonso** | (Iruñea, 1958). Biologian lizentziaduna, euskara irakaslea izandakoa, gaur egun itzultzailea da. 1995ean Mikel Zarate saria jaso zuen *Idiaren eraman handia* saiakeragatik. 2001ean, aurreneko Juan Zelaia saria irabazi zuen *Agur, Darwin (eta beste arkeologia batzuk)* lanarekin. 1995ean argitaratu zuen lehen nobela, *Katebegi galdua*, eta 1998an nobela eta saiakera artean dagoen *Camembert helburu* lana. Ondoren, *Euskal karma* rapsodia, *Hodei berdeak* eleberria eta *Erretzaileen eremua* ipuin liburua argitaratu ditu, besteak beste. Itzulpengintzan ere aritua da; berak euskaratu zuen Jose Samaragoren *Lisboako setioaren historia* edo eta Julio Cortazarren zenbait ipuin *Julio Cortazar: Antologia apetatsua*.

Jon Alonso

# Zintzoen saldoan



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2012ko azaroa

© Txalapartak EDIZIO HONENA  
© Jon Alonsok OBRARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.  
San Isidro, 35-1A  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

ISBN  
978-84-15313-42-7  
LEGE GORDAILUA  
NA. 2.025-2012



AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia



DEMAGUN: FLORINDA ETA BLOK modako jatetxe batera joan ginenekoa. Florinda adiskidea dela esan liteke, baina lankidea gehiago.

Menu luzea –garestia, alegia– eskatu genuen. Garestia? Ez, garestiagoa, garestiena.

Areto-buruak gaztigatu zigun: Kepa Pedrotegi sukaldariak ez du bazkaltzen ematen, soilik: bizipen, sentsazio bat sortu nahi du bazkari bakoitzarekin. Alegia, tripa betetzeaz haraindikoa zen haren jarduna. Sentsazio bat sortu. Asmo artistikoa, inondik ere.

Somelierra hurreratu zitzaigun. Neska asiatico bat. Ni, nire inozoan, erdaraz, jakina:

—Edan genezake ardo kopa diferente bat plater edo plater multzo bakoitzarekin? Aholkurik bai?

Jakaren hegalean eroritako uso-zirina banintz bezala begiratu zidan.

—Ez dugu ezer gomendatzen. Edatea libre da.

Errioxako ondu arruntenetako bat eskatu nuen. Orduan Florinda zorriak kentzen ariko balitzait bezala egin zidan so asiaticoak.

Tokitan daude euskal sukaldariek langile-bikote xume bat eta handi-mandi bat berdin hartzen zituzten garaiak, arraioa.

Geroxeago, ondoan bost ingeles jarri zitzaizkigun. Gazte samarrak, beren enpresak Donostiara bidalitakoak, hain segur. Haiek ez zuten beren patrikatik ordaintzen.

Denari emanda ari ziren, kartako botilarik garestienetako batzuk eskatuz (baziren 6.000 eurokoak, ardoetan; are garestiagoak xanpainetan). Asiatikoak jario-arrasto bat uzten zuen, ingelesen mahaira hurbiltzen zen bakoitzean, karakolak bezala, tortolatik zerionarekin.

—Ikusten? —nik Florindari.

—Zer nahi duzu. Merkatuko sukaldaritzarekin hasi ziren, eta *merkatuei* jaten ematen bukatu.

—Eta edaten. Batez ere edaten.

Florindak angurriaz egindako *carpaccio* sorpresa bat dastatu zuen, interes handiz.

—Zer da hau?

Angurria zela geroxeago jakin genuen, sentipen-sortzailearen mezulariari galdetuta.

—A!

Gutzien platertxoak bata bestearen atzetik zetozen, batzuetan nahi baino itxaronaldi luzeagoaren ondoren. Gauza batzuk aski onak iruditu zitzaizkidan, baten bat jenialtasunaren mugan; beste batzuk, arruntak.

—Bakailao kokotxa hori, salda horretan, hori nero nek egingo nuke, hau bezain goxo edo goxoago. Bost lerroko izena asmatzen, horretan lanak. Eskasagoa, ni.

—Zuk goxoago egin? Nahi bai.

—Hurrengoan etorri etxera afaltzera, eta ikusiko duzu.

—Ondo da. Zergatik ez.

Asiatikoaren jarrera ez zen mudatzen. Harentzat, jangela zikintzera joandako bi muki, bi txikle zanpatu baino ez ginen. Azken platerekin ari ginen. Botila erdi bat eskatu nahi genion gure Errioxa merketik —«merketik», etxe hartan, hitz egiteko modu bat zen—, eta somelierrak kasu zipitzik ere ez.

—Badakizu txistea, ezta? Gizona jatetxean sartzen da, eta zerbitzariari galdetzen, «gaur zer bait goxoa jan nahi dut, zer gomendatuko didazu?» Eta zerbitzariak: «Beste jatetxe batera joateko».

—Oso zaharra da, Enekoitz.

—Egia. Hala ere, umoreari eusten saiatzen ari naiz, nekez bada nekez. Ez al du esaten areto-buruak, marikoi horrek, haiek, menuaren bidez, sentsazio bat sortu nahi dutela bezeroaren barnean? Baita lortu ere, alajaina! Niri sortu didaten sentsazioa amorrua da, amorru bizia.

—«Marikoi horrek»? Amorrua ez dakit, baina barruan daukazun txarrena aterarazi dizu, hori egia da.

Zigala-buztan eder, izugarri bat txerri-pata batekin nahastuta ekarri zigutenean, bukaera aldera, eztanda egin nuen.

—Zigala gaixoa! Utikan!

Behingoagatik Florindak arrazoia eman zidan, bere gisara.

—Txerri-pata dohakabea!

Ordurako ikusi behar genuen guztia ikusita genuen. Ordaintzea falta. Asiatikoak jada ez zigun begiratzen. Ingelesek in ziharduen, tortolatik ping-pongezko pilota-jaurtiketan hasiko zela zirudiela.

Biribilduz, 500 euro. Eskerrak gastuetarako kaja ipinita ari ginen, Florinda, Toni, Martiartu, Andrea eta bostok.

—A zer sentrazioa... Ez didazu ikusten tonto aurpegia?

Baina Florinda lanean ari zen.

—Zer iruditzen?

—Zeozero egin liteke. Asiatikoari jugularra ebakita bada, hobe.

—Arrazista halakoa!

—Arrazista? Hura bai!

Gipuzkoa osoa Donostiako aldiria dela esatea gehiegikeria nabarmena bada ere, Kepa Pedrotegi-ren jatetxea hiriburutik gertu baitzegoen, marko alderaezinera joan ginen Florinda eta biok, maskorraz daukagun pertzepzioa gorabehera.

Gauean Andreak utzitako pisu batera joan ginen. Bera ez ei zen han bizi. Florinda aski beltzarana zen, eta a ze bi pepino. Baina banekien ez nuela zereginik, baldintza horietan behintzat.

—Profesionala izan beharra dago –pentsamendua irakurri izan balit bezala.

Bi panpinak bezala egin genuen lo.



Hurrengo egunean, gure harridura, periodikoa hartutakoan: Kepa Pedrotegi hilik topatu zuten, bere jatetxeko sukalde espazialean, gauez, tipula-ganibeta soingurutzearen erdian sartuta.

Atxilotu egin ninduten, jakina.

Alegia, bi aldiz egon naiz kartzelan, beste bitan atxilotuta eta sartzeko puntuan. Poliziari erraza izango zitzaion jatetxeko afaltiarrek identifikatzea, eta aurrekariak eduki eta guztiz fitxatuta dagoen bat topatzean, a ze poza, haiena, uste izatekoa da. Krimena gertatu eta hogeita lau ordutan susmagarria atxilotu, to eraginkortasuna.

—*¿Enekoitz Ramírez? ¿Enekoitz Ramírez Goikoetxea Lanbas?*

Ezizena ere ezagutzen zuten. Bai, ni nintzen.

Bi ziren. Batek masaileko bat eman zidan, zertan ez zegoela.

—Kaguendios! Zer dugu ba? Ostia!

Beste bat emateko imintzioa egin zuen. Bigarren morroiak galarazi zion.

—*No te manches las manos con esta escoria.*

Bost lagun ginela, esan zidaten: Florinda, Toni, Martiartu, Andrea eta bostok. Azken boladan jate-teeetan emandako *paloak* gureak zirela.

Dena ukatu nuen, noski.

Argazki batzuk erakutsi zizkidaten. Salatuko nituen ikusi izan banitu? Agian, presiopean... Baina ez zeuden. Nire sozioez, gainera, ez nekizkien haien egiazko izenak, ez nortzuk ziren, ez non bizi ziren, garrantzi gabeko zertzelada batzuez aparte.

—Hori baino ez baduzu esateko, barrura zoaz.

—Ez da lehen aldia izango –ez zen pozik nengoela, ez horixe. Baina, zer egingo.

Abokatuak ipini zidaten, Florindak eta besteek.

—Torturatu egin zaituztela esan dezakegu. Torturatu zaituzte?

—Aspaldi, urte asko direla, lehen aldiz harrapatu nindutenean, torturatu ninduten –esan nuen, eman zidaten ostia-piloa ez daukadalako ahazteko, denbora luzea igaro bada ere—. Orain zaplazteko batzuk, besterik ez.

Abokatuak kondizionala lortu zidan, harrigarriro.

—Gauza batek egin du zure alde: barruan zeundenean izan dela *palorik* handiena.

Ez nekien ezer.

—Kosta aldeko jatetxe batean sartu dira, Arrantzamendin. Jo-ta dena txiki-txiki eginda utzi dute.

Abokatuak Bilbao zuen deitura.

—Balbino Bilbao Ventura. Batzuek Balbino Bilbao esaten didate; beste batzuek, Bilbao Ventura. Bilbao esanda ez da aski, nahasgarria da.

Atera ninduen *talegotik*. Lagunek ordainduko zuten fidantza, denon fondotik, nik uste. Baina seriotasun-detaile bat zen, zertarako uka.

Bizitzen jarri nintzen, nire etxean, Etxauri azpiko herrixka batean, klimarengatik aukeratu nuen. Ez da oso toki ezaguna, eta hobe. Munduan dago, baina aparte egiten da pixka bat.

Han egoteak on egiten dio nire alderdi kontenplativo eta gogoetatsuari. Kultura bizitzaren ankerkeria-

ren aurkako leungarri guztiz dezezpionagarria dela egia bada ere, ezin izan naiz bere eraginetik askatu, benetan hobea edo jakintsuagoa egiten nauela sine-tsiko banu bezala, ideia hori ez den arren, berez, lorratz humanista zahar baten azken hondarra baino, ebidentziak alde guztietatik gainditzen duena; baina garai batekoongan –eta are gure gurasoengan ere!– hain errotua, hor ibiltzen garela ni bezala, esaterako Argensola anaien poesiarekin gogoetaka –ez da urdina, ezta zerua ere–, aspaldi batean, edo Marc Augerren ezlekuaren teoriak gora eta behera, oraintsu.

Nire alde esan beharko nuke, kulturaren keriatik askatu ez banaiz ere, ezin askatze horren mendeku gisa edo, seriooki ari naizela pentsatzen komunean, komun-zuloaren ondoan, apalategi –bi aldiz apalategi, kasu honetan– eta aldizkari-altzari bat ipintzeko aukera, kultura-jarduera, batez ere letra larriz idazten dena, edo kultura-jarduera oso-osorik ez bada irakurketa bederen, behar den mailan egon dadin, hau da, gaur egungo gizon-emakumearen bizitzan benetan betetzen duen mailan (komuna lasai irakurtzeko geratzen den toki bakarretakoa dela ahaztu gabe).

Gainera, honek, begi-bistako onurez gain, ezusteko abantailak ere baditu: Auger honek lekuez eta, batez ere, ezlekuez esaten duena erabat ongi konprenitzea zaila bazait ere, eta lekuaren eta ezlekuaren arteko muga non dagoen eta zeren arabera jartzen den zaila badirudi ere, komunean irakurtzeak komunak lekua behar duela ongi endelegatzeko balio izan dit. Norberaren eginkarien urrin ezaguna lekuko.

Etxaurin nengoenetik ez zen hainbeste denbora pasatu izan Florinda agertu zen arte. Nik esan behar banu, pepinoak hazi zitzaizkion itzalean igaro nuen denbora laburrean.

Ni ordurako onenak emanda nengoen, baina obus horiek, hogeita hamar urteko gazte baten gorputz horretan... hilik beharko nukeen irrintzirik ez egiteko. Piropo zakar batzuk bota nizkion, aldamioan daudenek bota ohi dituztenetakoak. Ezer inportako ez bali-tzait bezala, eta beharbada hala zen une hartan.

—Aldamiotik ez dizutela horrelakorik esaten? Bai krisi gogorra, eraikuntzan!

Norberak amets egiten du, zer topatuko sostena-ren azken itxiturak saltatzen duenean, baina horrek aurreikuspen guztiak gainditu zituen.

—Ostia!

Zer besterik esan bi meloi bete eta obszenoki estrabiko horien, bi titi-punta beltz, zabal eta dilin-dari horien aurrean.

Gizon guztiak nazkagarriak gara, bai.

Florinda antzerki kalkulatuaz mugitzen zen, ematen ari zen opariaren jakitun. Luma-abanikoa zabal-tzen ari den pauma zirudien, eta bere luma bakoitza zakila lehertzeraino puzten zidan odol-tanta zen. Koreografia hain zen primarioki lizuna, *nahita* hain primarioa, benetan lehertuko nintzela uste bainuen, dagoeneko leherkariz eskas ibilita ere.

—Ufa!

Koartadarik gabeko gizon guztien ametsa: ordain-duta balitz bezala, baina debalde.

Egoten zekiela, alegia. Michelineen hiru izarreko batean bezala, alproja baten logelan.

Nahi duzuen esango duzue, baina halako esperientziek egiten dute mundua bizigarri. Urteetara gogoratzeko, batez ere.

—Hogei urte lehenago harrapatu izan bazintut!

Florinda zigarro bat pizten ari zen, ezaxola.

—Kepa Pedrotegiren hilketaren susmagarria zara. Zer kontatu diezu txakurrei?

—Aukeran asiaticoa estrangulatu egingo nukeela nire eskuez, besterik ez.

—Oraindik ere!?

—Arrazista deitu aurretik: portatu zen bezala portatu zelako estrangulatuko nuke, ez asiaticoa delako.

—Eta nola utzi zaituzte aske?

—Zuek kostako jatetxe hura ongi izorratuta utzi zenutelako, antza denez, ni barruan nengoen artean.

Florindak ez omen zekien zertaz ari nintzen, edo horren plantak egin zituen.

—Arrantzamendi, diozu? Non dagoen ere, ideiarik ez.

—Ez zirudien Florinda oso interesatua zegoenik. Bestelako kontuak zeuzkan buruan.

—Zergatik deitzen dizute Lanbas?

—Kontu zahar bat da. Ahaztu egin dut, zaharren zaharrez.

Florindak, etorri bezala, alde egin zuen. Aste pare bat pasatu ziren. Iruñera joan nintzen, erosketak batzuk egitera. Bi morroi jarri zitzaizkidan alde banatan, Eroskiko atean.

—*¡Hola, Ramiro! No te importa que te llame Ramiro, ¿no?*

—*Enekoitz Ramírez.*

—*Es que con ese nombre, ni masticando chapas, tío. Horrelakoetan, diskutitzea alferrik izaten da.*

—*Ven con nosotros.*

Eroskiko aparkaleku zabalean bibotedun bat zegoen.

—*Te vas a comer lo del cocinero.*

Betiko kontua. Asko ibilitako harria naiz halako goroldioa biltzeko.

—*Hombre, así, a primera vista, no suena mal.*

—*No te hagas el listo. Puede ser fatal para tus muelas.*

Biboteduna labur eta zehatz mintzatu zen.

—*¿Te gusta la merluza en salsa verde?*

Martiartu baitzen, nolabait esan, koordinatzailea, harekin jarri nintzen harremanetan.

—Eskerrik asko.

—Eskerrik asko? Zergatik?

—Abokatuari, Bilbao Ventura horri, ordaintzeagatik.

—Tira. Horrenbeste... Gainera, fondoa zegoen oraindik.

—Eta fidantza ordaintzeagatik.

—Horregatik ez eman eskerrik. Hori Bilbao Venturaren kontua izan zen. Horrenbesterako fondorik ez zegoen, gainera.

—Ummm...

Eskatu gabeko mesedea, *malo*.

—Gainerakoan, jatetxeetako, bukatu da.

—Jatetxeetako, bukatu da. Katxondo halakoa.

—Eta kosta ondoan txikitu zenuten hori?

—Arrantzamendi jatetxeko mobidaz ari zara?

Oker zaude. Guk ez genuen zerikusirik izan.

Hara! Horrek esplikatzan zuen Florindaren erreakzioa, gaia atera nionean.

—... jatetxeetako bukatu da, beraz, baina lanerako gogoz bazaude, zerbait ari gara prestatzen errumaniar batzuekin

—Huraxe jende-modua!

—Nirekin tematzen ari dira. Edozein egunetan dauzkat txakurrak ondoan.

Martiartuk bereari.

—Altuzako Museoko pieza bat eraman nahi dute: *Irten ezina. Nafarroa, labirintoa den aldetik*. Nork erosi badaukagu.

—Altuzako Museoa!? Nafarroa!? Labirintoa!? Bai zera! Utikan!

Sanduzelaiko taberna erdipurdiko batean elkartzeakoak ginen. Martiartuk sorbalda-harrotu arin bat egin zuen, haraino autoz etorri izanak edozertarako eskubidea emango balio bezala.

—Kondizionalean nago, gainera.

—Eutsi, motel!

Popatik Martiartu.

—Eutsi!? Aski da!

—Zer nahi duk esatea? Seguru zaude *txukelak* zirela?

—Jesus! Egongo ez naiz ba!

Martiartu pentsakor zegoen, ez erabat konbentzita, itxuraz.

Madarikatu nuen jende modu harekin lotu nintzen eguna.

—Zer nahi duzu, Pedrotegi nik hil nuela esatea, Martiartu delako batekin?

—Demostraixu ezetz.

Horixe esan zidan: «Demostraixu ezetz». Handia duk euskalkien mundua, gero. Popatik, putakumea.

—Non dago Florinda?

Martiartuk barre egin zuen, hondo ilun batetik zetorren barrearaz.

Bilbao Venturak deitu zidan telefonoz. Zubiondon bazkalduko ote nuen berarekin, bere kontura. Baietz esan nion.

Eskatu gabeko mesedearen ordainaren bila etorriko zela pentsatu nuen. Ea, ba, zer bestela.

Abokatua beste batekin zetorren.

—Hau Fran Bildosola da.

Bostekoa eman genion elkarri. Bildosola buruhandi arradatu bat zen.

—Haragia nahi duzu?

Antxoa frijituak eta haragia eskatu genuen. Muga botila bat.



—Zure baitan galdezka ibiliko zara zergatik deitu dizudan.

Zubiondoko jabea erremente-jokalaria izana da, erretratu polit bat dauka pareta batean. Hari begira jarrita, esan nion:

—Bilbao, gauzak argi: zer nahi duzu entzun, eskerak ematen dizkizudala? Eskatu ez dudan mesedea-rengatik ez dut eskerrik ematen.

Bilbao Venturak barre egin zuen, ontasun egiazkoaz edo itxurazkoaz.

—Enekoitz... deitzen ahal dizut Enekoitz, ezta? Edo Lanbas nahiago?

—Deitu nahi duzun moduan.

Fidantzak ordaindu izanak horrenbesterako esku-bidea ematen zion.

—Ni lana eskaintzera etorri naiz, Lanbas.

Txartel bat eskaini zidan, esatearekin batera. Bilbao Ventura, AAB, Bilbo.

—AAB?

—Arriaran Abokatuak Bilbo. Hiriko bufeterik inportanteenetakoa da. Haientzat lan egiten dut. Uria Menendezekoen lehiakide zuzenak. Bost solairu Urkixo Zumardian, espezialitate guztiak, hogeita hamar abokatu plantillan, harreman onak, maila gorenekoak.

Zertarako beharko ninduen ni halako bufete batek, izerdi hotza eragiten zidan pentsatze hutsak.

—Ezagutzen dut zure curriculum. Interesetzen zait. Zure burua berrasmatzeko abilitadea daukazula erakusten du.

Antxoak oso goxo zeuden. Ez handiegiak, ez txiki-  
kiegiak. Garbi-garbi, oso olio onarekin frijituta, egi-  
negi baino lehenago sutatik aterata, produktu ezin  
hobeak merezi duen tentuz eta leuntasunez. Baratxuri  
xerra finek urreztatze-puntu justua zeukaten, piper  
min dosi justuak ukitu min oso arin baina hala ere  
bereizgarria ematen zien. Donostiakoan imitazio ia  
perfektua. Muga ardo hori patriarka bat zen: berea  
zen azken hitza, baina ezer inposatu gabe hitz egiten  
zuen, oihu edo kalapitarik gabe, arrazoi eta maitasun  
hutsez. Kopa hartu eta dranga edan nuen.

—Dasta onekoa, ardoa...

Ordura arte deus esan ez zuen Bildosolak baietz  
egin zuen buruaz, kopa altxatuz. Hurrup egin zuen,  
eta gero esan:

—Boteretsua, intentsua, oso bizia.

—Nire curriculumaz ari zara?

Barre egin zuten. Nik ez.

—ETAkide ohia, arte-faltsutzaile ohia, presidiarioa,  
jatetxe-lapurra... besteak beste. Ez dago batere gaizki.

—Utzidazu niri erabakitzen, nola dagoen.

Antxoarekin segitu nuen, bazkaltiarrei begiratu  
gabe, antxoa erdi bat hezurretik apartatuz, eskuz, eta  
ahoratuz.

—Zer nahi duzue, palo bat eman Oteiza Museoan,  
errumaniar batzuekin? *Nafarroa labirintoa den alde-  
tik*; edo «arazoa den aldetik»; edo «madarikazioa den  
aldetik»; edo... Baina ez sekula «Estatu auzia denez  
politikoki finantzatua den aldetik», edo «Madrilek  
erosi duen kortijoa den aldetik».

Elkarri begiratu zioten, apur bat harrituta. Bildosolak barre egin zuen, berriz.

—«Bilbok ezin erosi izan duen kortijoa den alde-tik», nahiago?

Barre gehiago. Orain nik ere bai, pixka bat, tentsioa arinduta, grazia egiten zidalako baino gehiago.

—Lanbas, umorista bat zara.

Nire purrustada arintze aldera edo.

—Jakina. *Talegoan* ere denek esaten zuten, «tipo hau umorista hutsa duk». Gure galeria, ikusi behar-ko zenukeen, hura katxondeo bat zen, etengabea.

—Galeria aipatu duzunez... Segitzen duzu arte-galeriarekin?

Dena zekiten niri buruz, antza. Galeriatik galeriara ibili naizela ere bai. Iruñeko katedraleko kaliza batzuk lapurtu genituen. Barrura joan ginen. Ateratzean, arte-galeria bat eduki nuen. Frantziar badaez-padako batzuekin lotu nintzen, orduan, galeria eduki nuen garaian, Toulouse-Lautrecen koadro bat faltsu-tzeko. Berriro barrura. Galeriatik galeriara ibili naizelakoa metafora bat baino zerbait gehiago da.

—Ez. Itxi egin nuen, garai hobeak iritsi arte. Arte-galeriena BEZik ordaindu nahi ez duten familia oneko alaba azeri, alargun, menopausiko eta astidunen kontu bihurtu da.

—Horrelakorik! Askoz hobe *granuja* profesionalen esku zegoenean, ezta?

—Duda egiten duzu, ala?

Ardo pixka bat ahoratu nuen, azken antxoa-mokaduaren lagun. Ardoa ere bukatzeaz zegoen. Bilbao

Venturak botila hutsa inarrosi zuen zerbitzaria pasatzean.

—Bon, gure bezero berezi batek lan berezia eskatu digu.

Lehen txuleta ekarri zuten, letxuga platerkada batekin. Txuletak itxura *madria* zuen.

—Zenbateraino berezia?

Balbino Bilbaok gatzontzia astindu zuen letxuga gainean.

—Kepa Pedrotegi.

—Berriro horrekin? Baldintzapeko askatasunean nago, txo. Zerorrek ordaindu duzu fidantza.

—Gure bezeroak ikerketa bat nahi du.

—Hor ibiliko dira, ba, Ertzaintza, nazionalak eta *amaputiaren* seme-alaba guztiak. Beste ikerketa bat? Ez al du nahikoa, ala?

—Gure bezero bereziak ikerketa berezia nahi du.

—Nor da bezero hori?

Balbino Bilbaok ez entzuna egin zuen.

—Demagun gure bezero bereziak iturri propioak nahi dituela, lehen eskuko informazioa.

—Eta nondik uste duzue ni iturri naizela, edo naitekeela?

—Bildosola –deitu zuen abokatuak, eta okela-zati bat ahoratu.

Bildosolak furtxetaz iltzatu berria zuen okela-zatia platerean pausatu zuen eta eztarria leundu, mintzatu aurretik.

—Albiriste taldeko kazetaria naiz, gastronomia sailaz arduratzen naiz, harreman onak ditut, mundu guztia ezagutzen dut.

Baritono ahotsa zeukan, egokia zitzaion gorpuzkera zilindrikoari. Ehun kilotik gora izango zen, aise.

—Oso interesgarria.

Nire tonua aski ironikoa zen, ez dut ukatuko.

—Ez duzu uste, ala? Demagun, Kepa Pedrotegiren kasuan. Zer dakizu hiltzeko erabili zuten armaz?

—Ezer ere ez.

—Santoku labana bat zen, Arcos markakoa, NITRUM® altzairu herdoilgaitz forjatuz egina, polioximetileno-zko giderra eta 180 mm-ko ahoa zituena. Zer dakizu Santoku labanez?

Esan zuen moduan esanda, Chinook helikopteroak jostailu bat zirudien Santoku hilgarri baten ondoan.

—Ezer ez, puta ideiarik ere ez.

—*Santoku* hitzak, japonieraz, 'hiru bertute' esan nahi du; hiru bertute, labana klase honek dituen adina erabilera: okela, arraina eta barazkia maneiatzeko. Oreka handikoa da, eta aho zorrotza dauka. Albeoloduna da, eta albeoloei esker elikagaiak ez zaizkio itsasten labana-orriari. Punta zabalagoa du ohiko tipula-labanak baino, eta horrek, nolabait esan, halako aire *buruhandi* bat ematen dio. Arguiñanok telebistan askotan erabili izan du Santoku bat, horrek asko popularizatu du.

Buruhandi? Nolako buruhandi? Zu bezalakoa, Bil-dosola edo dena delako hori? Bestalde, bereziki lasai-garria zen labana albeolodun bat erabili izana, horrek ziurtatzen baitzuen ez zela zenduaren pusketarik erremintan geratuko. Hiltzaileak oso fina, oso higienikoa behar zuen.

—Labana bi omoplatoen artean tinkatua zen, gorenean, tente, zut. Gorpua barazkia xehatzeko mahai baten aurka bermatua zegoen, ahuspez.

—Pentsatu nuen *omo* eta *plato* hitzak aprobetxatzea sukaldari baten gorpuari buruzko txisteren bat egiteko, baina merkeegi iritzi nion.

—Krisia hasi denetik eskopeten salmentak eduki duen *repuntearekin*, eta labana erabili?

*Repuntea* esan nuen, nahita, eta ez *hazkundera*, *igoera* edo *errepuntea* ere. Diglosiak halako kapritxoak ditu.

Bildosolak modu esanguratsuan begiratu zion Bilbao Venturari.

—Hor dago koxka. Susmoa dugu hori *mise en scène* bat baino ez zela izan. Tira, sukalde kontuaz ari garela, eta ni gastronomiaz arduratzen den kazetaria naizenez, egokiago litzateke esatea *mise en place*, beharbada.

—Zertarako hainbeste lan?

Bigarren txuleta ekarri zuten. Bildosolak zati bat platereratu zuen, erantzuteko imintziorik egin gabe. Balbino Bilbaoren txanda zen, antza.

—Hori eta beste mila misterio dago heriotza horretan. Gure bezero bereziak horiexek deskubritu nahi ditu, eta ez du uste Ertzaintzak, edo Polizia Nazionalek, edo beste edozein poliziak denak deskubrituko dituztenik. Eta are gutxiago uste du –hau da, badaki *ezetz*– deskubrituz gero hari esango diotenik.

Poeta gazte batek bere adierazpen-aukerak noiz esploratuko zain dagoen hitz bikotea da *bezero berezi*.

—Halako *bezero berezi* asko daukazue?

—Tira. Dena pribatizatzen ari da, zergatik ez informazio-trafikoare?

Bizitza halakoa da. Norberak uste du zeozertarako kualitateak, abilezia edo erraztasuna daukala, eta laster ikasten du beti dagoela *berea* uste zuen horretan gehiago den beste norbait. Gertatzen da kirolean, erudizioan, jakintza teknikoaren menderamenean. Bi dozena arrautza jateko kapaz naiz, ordu betean. Egon trankil, laster topatuko duzu ber denboran bi eta erdi jateko gauza dena. Jende horrengan usnatzen zen erabateko eskrupulu faltak nirea txiki utziko zuela susmatzen nuen.

Bigarren txuleta ere goxo zegoen. Apur bat gogorxeago, baina.

—Txuleta hau beste pieza batekoa dela esango nuke.

—Ondo, Ramirez, ondo. Elkar ulertzera irits gitezke –bota zuen Bildosolak–. Lekunberriko Epeletarra eta Tolosako Julianera joango gara.

—Bai, nik ulertzen dut zure bezeroaren jakin-mina. Baina zertan lagunduko nioke nik?

Berriz mintzatu zen Bildosola.

—Balbinok esan nahi duena da ni, nire kontaktuekin, informazio-maila batera iristen ahal naizela; baina maila horretatik aurrera, nekez lortuko dudala besterik laguntzarik gabe. Eta, agian, zuk eman ahalko zenidakeela laguntza hori. Ekipo on bat osatuzakeela, alegia.

Abarkalarruok halakook! Ez zitzaizkidan eskatzen ari, bada, iturginarena egiteko haien alde? Morroiok burutik zeuden.

—*Redios!* Baldintzapean nago, eta ea Tolosara joango naizen babarrunak jatera? Kasik nahiago nire burua entregatzea komisarian!

—Poliziarekin arazorik edukiz gero, gure bufetea zure zerbitzura jarriko dut, zin degizut. Asistentzia legalik onena edukiko duzu —Balbino Bilbaok, serio orain—. Baina ez da beharrezkoa izango. Orain zintzoen artean zaude, onentzat lan egingo duzu.

Ez nion merezi zuen arreta eskaini, Tolosara joateko kontua neukan atxikia buruan.

—Egon, egon... —Bildosola zen—. Tolosara babarrunak jatera, nora eta euro batean ordainduko duen urteko ardo botila, hamabi eurotan kobratzen duen horren etxera? Ezta pentsatu ere. Nik Julianera esan dut.

—Profesional bat naiz, eta nik aukeratzen ditut nire lanak.

Ironiak biltzen zuen Balbino Bilbaoren irribarrea.

—Gaizki behar du profesioak, zu bezalako profesional bat jatetxeetan *paloak* ematen ibiltzeko.

Gerra honetako pasadizuak, nik kontatu al banitza, pentsatu nuen. Esan, aldiz, beste hau, oso serio.

—Nire kondizioak ditut.

Gibela harrizkoa, honezkero, nik.

—Baldintzak eztabaidatu eta adostuko ditugu.

Hura ere ez zen muslari makala.

Bildosola aiztoa pasatzen ari zitzaion bigarren txuletaren hezurrari, kuxidadez, zirujaugai bat balitz bezala, praktketan. Honek hitz egin zuen.

—Has gaitezen. Inoiz arduratu zaitu Michelin izarren kontuak?



Kopa bete zidaten berriz. Bazirudien kontratatuta nengoela, edo kontratatutzat nindukatela.

—Ez

—Normala. Beste modu batera esanda: zuk uste duzu normala dela, oraintxe bertan gauden tokitik ez oso urrun, tortilla bokadilloak baizik ematen ez zituen errepide ondoko benta tristea sukaldari batek hartu, eta hiru urteren buruan Michelin izar bat lortzea?

Araua da, niretzat, galdera kapziosoei ez erantzutea, ez bada galderaren egilea gogoz zurratzen ari zaidala.

—Alegia: nola uste duzu lortzen dela Michelin izar bat?

—Ez dakit ba... Lapurtuta, igual?

—Profesional bat zara, inondik ere —Balbino Bilbaok, barrez. Auskalo, martxa horretan azkenerako adiskideak egingo ginen, benetan.

—Ez... —zioen Bildosolak, eraman handiz—. Ez da behar hainbeste neke hartzea. Pagatzea aski duzu.

—Logikoa.

Ez bide zitzaion nire erantzuna gustatu, eta eskua altxatu zuen, esan berriaz damututa:

—Kontuz: ez dut esan nahi denak ordainduta direla; eta «pagatzea» esaten dudanean, ez naiz ari esku-dirua banatzeaz, edo salerosketa iruzurti batez. Gauza sofistikatuagoa da.

—Zuk esango duzu.

—Ezagutu nuen Michelinen inspektore hogeituz urtez ibilitako gizon bat. Hark esaten zuen beldur zela gidek gaur nagusi diren merkataritzako ideiak

praktikan ipiniko ote zituzten, giden independentzia eta seriotasuna kolokan jarritz.

—Eta horrek zer esan nahi du?

—Horrek esan nahi du, lehenengo eta behin, dagoeneko ideia horiek praktikan ipini dituztela.

—Eta ideiak horiek...

—Erraza da. Gida batek, Michelin, Gault-Millau, Repsol edo dena delakoak –pila bat baitago, gero eta gehiago–, jabetzez jabetze eta hotelez hotel zelai-lana egiten duen ekipo bat dauka. Ekipo horrek eskualde bateko tokiak ezagutzen ditu, nolabaiteko kalitate-ikuskaritza bat egiten du... Informazio oso baliotsua biltzen du. Beste alde batetik, zer egiten du eskualdeko turismoaz arduratzen den administrazio batek, besteak beste? Informazio hori bera bildu, edo biltzen saiatu, edo biltzen duela itxuratu. Eta administrazio horrek erabakiko balu bere eskualdean lan egiten duen gida bateko ekipoaren zerbitzuak erostea? Gida egiten duen enpresak administrazioaren diru publikoak lortuko lituzke bere lanaren truke, eta irabaziak aise biderkatuko lituzke; administrazioak dirua aurreztuko luke sasi-pribatizazio horren bidez, eta, gainera, bere irizpideak ezartzeko txokoren bat ere bilatuko luke. Esaterako, bultzatu nahi dituen turismo-gunee-tan izar *express* batzuk lortuaraziz.

Ardo kopari sakada ederra egin zion.

—Eta hori posibilitateetako bat baizik ez da. Beste posibilitate bat, demagun, zerbitzu horiek berak ostalaritzan dabilen inbertsio talde bati saltzea izan daiteke, esaterako. Administrazioari saldu edo *lobby*

bati saldu, ordea, emaitza beti berbera da: gidak galdu egiten du bere independentzia; eta, beraz, higatu egiten da bere sinesgarritasuna, erabat galtzeraino, ausaz, eroslearen interes ekonomikoen mendeko beste tresna bat baizik ez delako. Eta sinesgarritasunik gabeko gida bat ez da ezer.

—Eta zer moduz jaten da orain «oso gutxira arte tortilla *bokadilloak* baizik ematen ez zituen errepide ondoko benta triste» horretan?

—Ez, ez. Ez gaizki interpretatu nire hitzak. Ondo jaten da, ondo. Halako jokaldi bat egiten denean, profesional onak eta dirua ez ohi dira falta, beraz... Baina auzia ez da hori. Gaur egun Michelin gidari kompetentzia handiena egiten dion *Restaurant Magazine* aldizkaria multinazional batek eta ur mineral marka batek ordaintzen dute. Michelinek betiko espirituari eutsi nahi diola dio, baina...

—Hainbesterako al da izarra edukitzea, benetan?

—Turismo gastronomikoaren zirkuitu selektoetan sartzeko aukera ematen duen inbertsio bat da. Garai batean Michelinen ospea itzela zen. Michelin izarren zerrenda, lehen, sailkapen sasi-ofizial ia erabat onartua zen; orain kompetentzia handia dago, ez bakarrik jatetxeetan; jatetxeak sailkatzen dituzten gidaliburuak eta erakundeen artean ere bai. Orain makina bat gida, sari, sailkapen, biltzar, aldizkari eta erreferentzia daukazu. Michelin gidak olatuari aurre egiten dio: Espainiako Estatuan zeuzkan inspektoreak hirukoiztu egin ditu, bost urteko epean, lehian segitu ahal izateko. Alegia, gastuak hirukoiztu egin ditu. Gastuak

biderkatu ahala, galdu egin du sinesgarritasuna, hainbaten begietan. Hau da, nondik ateratzen da dirua?

—Beraz, izarraren inbertsioa gaizki atera daiteke.

—Gaizki... Dena erlatiboa da. Bestalde, zer apustuk ez dauka gaizki ateratzeko probabilitate bat? Michelin izarrak ez du bere prestigio guztia galdu. Baina bai, gerta daiteke izar batek askotarako ez ematea. Zerikusirik ez orain hogeit hamar urteko panoramarekin, hori seguru.

Beste ardo trago bat edan zuen.

—Bon, horixe esan nahi nuen «aski duzu pagatzea» esan dudanean.

—Eta hori ulertu dut nik, baita ere, «logikoa» erantzun dudanean. Baina zer iradoki nahi duzu, Pedrotegi izarren gorabeherengatik kasatu zutela?

—Ez. Adierazi nahi dudana da Pedrotegi eminentzia bat zela goi mailako sukaldaritzan, eta mundu hori ez dela interesik eta katramilarik gabea.

—Bestalde, Michelin izarren prestigio-galtzea dela-eta, inbertsioa ez bada errentagarria, zer egiten dute sukaldariek, edo jatetxeko jabeek?

—Zer komeni den... Zuk zer egingo zenuke?

—Ez dakit ba... Jatetxeetako komunak eskuila-kopuruaren arabera sailkatzen dituen gidaliburu bat?

—Ideia ona izan liteke. Norberaren ekonomia suspertzeko, ordea, hori baino neurri larriagoren bat beharko litzateke.

—Norberaren jatetxea erre, aseguruua kobratzeko, igual?

Bilbao Ventura barrez lehertzen ari zen.

—Profesionala? Profesionala bakarrik ez, Fran; tipo hau fenomeno bat duk!

—Oso sortzailea, bai. Gaitasun handikoa, bere burua berrasmatzeko!

—Kafeak eta patxaranak?

—Postrerik gabe? Ez dugu aurretik kanutillorik jango, ala? Edo pantxinetarik?

Kanutilloak, kafeak eta patxaranak eskatu genituen.

—Ea ba. Hitz egin dezagun kondizioez.

Handik bi egunetara zita eginda nengoen Fran Bidosolarekin, Bilbon, goizeko hamaiketan. Zerbait ari zitzaidan burutik, hari solte bat bezala.

—Bilbao Venturak esan zidan lortu zuela ni fidantzarekin ateratzea Arrantzamendi jatetxea hankaz gora ipini zutelako ni barruan egon nintzenean.

—Horixe dio, bai.

—Lapurtu al zuten zerbait? Ez zait oso garbi gertatu.

—Bai, antza, zerbait eraman omen zuten. Baina huskeriaren bat bide zen.

—Jakin da nork egin zuen hori?

—Ez, nik uste. Baina, izan zena izan zela, dena zisko eginda utzi omen zuen: generoa kameretatik kanpo, botilak apurtuta, mahaiak hankaz gora; txiza eta are kaka egin omen zuten bazterretan, sukaldeko

tresnak apurto zituzten... Mendekua edo norbaiten aurkako zigorra ematen zuen, diotenez.

Kantabriako Loja herrira gindoazen ordurako, horretarako jarri baikenuen zita.

—Negozioan sartzen joan behar duzu. Honek honela funtzionatzen du: Lojako herriak turismoa sustatu nahi du. Turismoaren sustapenak hainbeste alderdi, ertz, koska dauzka, noski. Normala denez, norberak bere puntu indartsuak nabarmendu eta azpimarratu behar ditu, eskasagoak direnak ezkutatzen edo ezereztatzen saiatuz. Hau dena bigarren hezkuntzako ikasle ez oso espabilatu bati okurrituko zitzaion, aise, beste garai batzuetan; baina orain turismo-teknikari kohorte batek prestatu behar du Lojako edo beste edozein herritako Turismoaren Plan Estrategikoa; bere aldetik, teknikari kohorte horrek marketineko adituen enpresa bateko morroi batzuen eskutik jaso du nolabaiteko prestakuntza, zeinean DAFO, *brainstorming* eta hori bezalako beste teknika batzuen funtzionamendua ikasi baitu; eta beren aldetik, marketineko enpresako adituak enpresa estatubatuar baten Europako dibisioak trebatu ditu. Bon, adituak prestatzen dituzten adituak prestatzen dituzten n-garren berreturaren adituen aholkuen ondorioz, hauxe proposatu diote Lojako –edo beste edozein herritako– alkateari: gure indargunea gastronomia da; bultza dezagun gastronomia, zeren, urteko, eta are udako eguzki-orduez hitz egiten hasten bagara, turismoa alde batera utzi eta euritakoen enpresak muntatzen hasi beharko baikenuke. Zein da Lojako

gastronomiaren izarra? Lojako nekora. Are, Lojako nekora da Kantauriko kosta osoko nekorarik onena.

—Eta hori nork dio? Getariakoek, edo Zarauzkoek, edo Donostiakoek, edo Lekeitiokoek, edo Cudille-rokoek eta San Ciprianekoek, hau da, euskaldunek, asturiarrek eta galegoek ez behintzat.

—Ez. Horiek ez. Hori notarioaren aurrean bildu zen aditu talde batek erabaki zuen.

—Jakina, adituak baziren...

—Oso adituak. Lojakoek, bertako LOTUPLEK (Lojako Turismoaren Plan Estrategikoa) dioenari kasu eginez, hainbat aditu bildu zituzten. Hauek Kantauri osoko nekora batzuk jan zituzten. Adituek Lojakoak zirela onenak erabaki zuten, eta notarioak horren fede eman zuen.

—Eta nola iritsi ziren adituak ondorio horretara?

—Zuri zer iruditzen?

—Erosita zeuden?

—Erdiak, bakarrik. Ahaleginak neurtu behar dira. Krisia, badakizu. Erdiak aski, horrenbestez: Lojako nekorak ez dira batere txarrak, egia esan, eta erositak ez zeuden adituen erdien boto bakar bat nahikoa zuten irabazteko. Oso zaila da hamabost adituetako batek, halabehar hutsez baino ez bada ere, Lojako nekorari botoa ez ematea, endemas, esan dudan bezala, onak izanda. Eta txiripa hutsez berdinketa gertatzen bazen, horretarako zegoen notarioa.

—Erosita hura ere, e?

—Bon, berea «kalitatezko erosketa» zen. Bakarrik berdinketa gertatuz gero baliatzekoa.

—Eta zuk nola dakizu hainbeste?

—Erosi ez zuten adituetakoko bat ni naizelako.

—Zintzoegia zarelaokan?

—Zintzoegia ni? Ezta pentsatu ere! Baina kanta-  
broek *paketea* didate euskalduna eta abertzalea nai-  
zelako. Konpetentzia, beraz.

—Zu ez erosteak ez du frogatzen besteak erosita  
zeudela.

—Horrek ez, egia. Baina erositakoetako batek kon-  
tatu zidan.

—Diruz erosi zituzten?

—Esku diruz, efektiboz? Ez, gizona. Lehengo  
eguneko gaira itzultzen gara, Michelin izarren gaira,  
alegia. Gaur egun erosketa-sistemak asko sofistikatu  
dira. Aski da pertsona egokiak emandako *indikazioa*  
eta *aholku* batzuk aintzat hartzea, *konpentsazioren*  
bat egongo dela ziurtatzeko.

—Eta orain nora goaz?

—Lojara, noski. LOTUPLERen hurrengo urratsa *imple-  
mentatzera*. Orain, Lojako nekora Kantauri hegaleko  
onena dela notarioaren aurrean frogatu eta gero, ni  
bezalako dozena batzuk gastronomia-kritikari gonbi-  
datu gaituzte, nekora batzuk jatera. Gero zenbait *indi-  
kazio* eta *aholku* isuriko dira bazkalosteko solasetara,  
eta bakoitzak bere kazeta, egunkari, blog edo aldizka-  
rian aldarrikatuko du Lojako nekoraren bikaintasuna.  
Horrela, datorren udan Lojako bazterrak leporaino  
beteko ei dira nekora gose doazen turistez. Ulertzen?

—Zuk ere *indikaziorik* jasoko duzu?



—Ez. Nik ez. Nirekin etsi dute. Pozik, gonbidatzen nautelako, eta zu ere gonbidatzea lortu dudalako, *Bib Gourmand* batera, gaurko kasuan. *Aholku* gehienak Madrilgo medio handietakoentzat izaten dira. Haiek idazten dituzte, gero, Europa eta are mundu osoan egiten diren festa gastronomiko guztiei buruzko artikulua. *Indikazioei* eta *aholkuei* esker, elite bat sortzen da; kronikak idazten dituzte, gaur Singapurtik, bihar Brasildik, etzi Londresen daude...

—*Bib* zer...?

—Michelin gidak jatetxe bat *Bib Gourmand* izendatzeak, sukaldariek esaten duten moduan, mapa gastronomikoan jartzen zaitu.

*Bib Gourmand* hartan izan omen zen notario aurreko nekora-dastaketa. Jatetxeko atarian, jabea ez ezik Lojako alkatea ere bazegoen, dena irribarre. Hari mundu guztiak *Bobby* esaten zion. Kazetariak eta gastronomia kritikariak iristen ari ziren, dozena batzuk zeuden.

—Bobby hau benetan hain sinpatikoa da edo LOTUPLEK agindutako estrategia bat *inplementatzen* ari da?

Jakin nahi izan nuen. Baina Fran Bildosolak ez zidan erantzun, bera ere dena irribarre alkatea besarkatzen ari zelako. Gero nire aurkezpena egin zuen.

—Esan nizun bezala, Enekoitz Ramirez. Gure komunikazio taldeko kudeatzaileorde izendatzekotan daude.

Hori duk eta, Bildosola! –pentsatu nuen–. Aurrena gezurra.

Bostekoa eman zidan, LOTUPLEK kudeatzaileordeentzat xedatzen duen neurriko indarrez, nik uste. Handik zebiltzan beste batzuk agurtu zituen, eta gero, txalo artean, jatetxeko terraza batean ipinitako oholtza txikira igo zen, ongi etorri hitz batzuk esateko, eta produktuaren kalitatea laudatzeko.

—Lojako nekora, nekorarik onena da. Arrazoiak? Kosta garbia eta haitzez betea, alga ugari, hondakin organiko edo inorganikorik gabeko ura; kontrolak, debekualdiak eta murrizketak onartu eta betetzeko, arrantzaleen diziplina zorrotza, betiko arrantza-artearen erabilera...

Eseri egin ginen, mahai biribiletan, lau edo bost lagun mahai bakoitzean. Erdiko mahaietan, mahai nagusian alegia, *Bobby* alkate sinpatikoa, jatetxeko jabea eta Madrildik etorritako bi kazetari zeuden. Gu Burgosko eta Palentziako kritikari banarekin eserarazi gintuzten, zeina baitzen oso bazterreko sentiarazteko estrategia baten parte, Bildosolak gero, bueltako bidean, adierazi zidanez. Palentziakoak aste santuko kandelaren aire bat zeukan txertatua, mantekilaz abusatu dutenen antzera. Burgoskoa –hura nobedadea!– emakumezkoa zen.

—*¡La mujer burgalesa, siempre dispuesta a reinventarse!* –jakinarazi zigun, nire harriduraz jabetu zenean.

—*¡Enriqueta Celemín! ¡Qué alegría poder saludarte!* –zioen Bildosolak, musu bi ematearekin batera—. *¡No te veía desde que empezó la guerra del txakoli!*

—*Si no fuerais tan racistas...*

Bada jende modu bat, dakizkien topiko guztiak esan arte lasai gelditzen ez dena, antza. Edo topikoak bere interesen aldeko arma erabilgarri jotzen dituen.

—*¡Pero qué dices! ¡Si yo tuve una novia de Burgos!*  
—moztu zion, gerritik beherako nazioartekotasunaren aldarri.

Egia omen zen, geroago, autoan, esan zidanez.

—Encarnacion zuen izena, eta Burgoskoa zen. Baina Bartzelonan bizi zen. Hispania, Can Solé, Agut d'Avignonera eramaten nuen. Hura neska majoa zen, ez puta zahar hau bezala.

Enriquetaren eta Bildosolaren arteko etsaigoa, itxura batean, aro bat markatzen duenetakoa omen zen. Bildosolarekin mokoka, emakume hark dena bihurtzen zuen ika-mika gai: txakolinaren jatorrizko izendapenetik saltsa berdea prestatzeko modura. Edozein aitzakia aski zuen Burgosko bigantxak Bildosolari adarkada tiratzeko. Honek adarren joan-eto-rria itzurtzen bazuen aski lan. Gu baztertzeko baino gehiago, ez al gintuzten kantabriarrok Burgoskoarekin jarri izango txakolinen gerra berpitz zedin?

—Garbi gera bedi nik irin pixka bat egiten diodala saltsa berdeari —esan zidan geroago Franek, aitorpen modura—. Baina zirikatu egin nahi nuen.

Saltsa berdearen eta abarren gainean eztabaidatu bitartean, pikatzeko gauza batzuk ekarri zituzten.

—Substantziarik gabeko aperitiboa —epaitu zuen Palentziako kritikariak—. Copenhaguen Rasmus Köfoeden eta Rene Redzepiren jatetxeetan tuberkuluak probatzetik nator. Cristian Puglisik arbi-aza bat aurkeztu

zidan, hain fin moztuta, zerrendetan, *pappardelleak* zirela ematen zuen.

—Batere kasurik ez. Copenhagen Palentziatik urrutiegi balego bezala, edo. Gainerakoan, jende guztiak dauka bere lanbideko jargoia arma bat balitz bezala erabiltzeko ohitura.

Ni nahiko harrিতuta nengoen, Albariño edaten ari ginelako. Bildosolari esan nion.

—Albariño, Kantabriako produktu bat laudatzeko bazkarian? LOTUPLEk ontzat emango al du?

—Hemengo ardo bat, Kantabriako ardo eskas bat, Kantabriako ardo guztiak bezala, ipiniko zigutela egin zuten mehatxu; guk protesta egin genuen. Azkenean, Albariño bat hitzartu genuen, betiere gure artikuluetan ardoaz deus ez esateko baldintzarekin.

—Palentzian dauden ardoekin –sartu zen Palentziako kritikaria, Palentziako ardoaren aitortza eskasa laido baten antzera bizi zuena, itxuraz, edo agian Copenhageneko ibilerak eduki zuen arrakasta txikiaz minduta.

Halako batean pakete garden batzuk iritsi ziren mahaira, beren lazo eta guzti. Poltsatxoek zerbait gorria zeramaten barruan.

—Orain karameluak?

—*Carta fata* papera da –jakinarazi zidan Bildosolak–, Fabio Tacchela *chef* italiarrak boladan ipini duena. Papera da, bai, baina labean edo sutan erabil dezakezu, eta ez ditu bere ezaugarriak galtzen.

—*Papillote* bat da, azken finean –jakinarazi zuen Enriquetak, sufizientziaz.

Begiztak askatu genituen, eta itsas urrin sarkor eta eder bat hedatu zen bazterrotan. Nekorak bakea ipini zuen bere barne-mami bete eta urrintsuak kentzeaz arduratu ginen denbora guztian, baina ez gehiago.

Bigarren asaltoa Kepa Pedrotegiren funtzioan egon ziren sukaldari, agintari eta pertsonalitate guztien izenak aipatuz hasi zen. Zerrendaren luzeari kasu eginez gero, funtzioa estatuburu baten mailakoa izan ei zen. Palentziakoak atera zuen gaia. Sukaldari euskaldunetatik ez omen zen bakar bat ere falta izan. Letania luze bat bezala errexitatu zuen zerrenda. Euskaldunetatik katalanetara pasatu zen gero, futbol taldeko hamaikakoa errexitatzen ari zela zirudiela. Gero Espainiako hainbat aipatu zituen, nireztat guztiz ezezagunak; baita gainerako gehienentzat ere, nonbait, izena aski ez eta beren obra eta mirakuluak aipatzen zituelako izen bakoitzaren ondoren:

—... Urليا, *atascaburras* delakoa duindu duena, Sandia, Bierzoko *botilloa* modernizatu duena, Berendia, Extremadurako *calderetaren* aukera infinituak azken muturreraino eramán dituena, Halako, Murziako *zarangolloaren* kontzeptua berritu duena...

Etenik gabe, frantziarrekin lotu zuen, bere gibel kastigatuak uzten zion energia guztiarekin:

—Bocuse, Troisgros, Ducasse, Robuchon, Bras, Veyrat, Guérard...

Gero beste izen mordo bat ahoskatu zuen, toki batzuetakoak non nik ez bainekien jatetxerik edo sukaldari famaturik zegoenik ere.